



Zuhotza
euskaraz elkarrekin... deba

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 156. alea - 2011ko urria




Euskal giroan,
markak hautsiz



MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN



MULTIÓPTICAS
Uzuri

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es

ESTITXU ERREFORMAK

- DEKORAZIOA
- SUKALDEAK
- PROIEKTUAK
- BAINUGELAK
- ERREFORMAK
- ALTZARIAK

Hondartza kalea 3 - behea
20820 DEBA
Tel. 943 19 23 87
Fax 943 19 23 87
www.estitxuerreformak.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29

oskarbi

Pintxoak
Razioak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 618 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

MAZZANTINI
TABERNA

Sokagia, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

Informátika **Electrónica**

Treseria
informátika

Ongai
elektronikak

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

e-mail: jk@informatikojeletronika.e.telefonico.net

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte gusturaz zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa: 943 192 576
20820 DEBA

ORAIN

ILEAPAINDEGIA

C/ Hondartza, 2 • Tel: 943 192 109 • 20820 Deba

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea:
Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:
Erredakzio taldea

Publizitatea:
Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua

Banaketa arduraduna:
Juanma Oiartzabal

Inprimategia:
Euskalinpri

Tirada:
1.400 ale

Lege gordailua:
SS-246-2009
ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILERAK



LAGUNTZAILERAK



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

AKTIBIDEA



6-7



9



16-17

KOLABORAZIOA.

Nekane Goikoetxea,
"Barkaziuak". 05.

KRONIKA. Euskal Jaia 2011, iruditan. 06-07.

LABURRAK Burdin Kurutz M.T. eta Luzaroren mendi irteerak, Mintzalaguna, Kalitate Turistikoaren diplomak... 08-09.

ALBISTEA.

Debanaturaren proiektu berria. 10.

BERRIKETAN GAZTEA. 11-14.

KRONIKA. 1936ko iraila. 16-17.

ZERBITZUAK. 18.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2011 urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzaileen@zuhatza.com.

SAN ROKEEK LAGATAKOA, KOPLETAN

Badirudi urruti samar gelditu zaizkigula dagoeneko San Rokeak, baina irailean ez da kaleratzen *Berriketan* aldizkaria. Igor Larrañaga *Zuhatzakideak* aurtengo festen bueltan koplak eder hauek helarazi zizkigun. Nola utziko genituen ba aldizkarian plaza-ratu gabe?

**Berrikuntzak San Rokean
Deba herriko kaletan
herri jaietan zer gertatu den
kantatuz koplak hauetan**

**Hamahiruan hasi ziren
JHAK-ekoak parte hartzen,
musika eta burrunbarekin
herria alaitu zuten**

**Rokeri zapia jartzen,
Jesus Marik utziz aurten,
Josu semeak jarrai dezala
urte askotan hain zuzen**

**Andra Mari egunean
entzierroa zen kalean;
erabakian asmatu zuten
nere uste apalean**

**Gure Kaiko dantzariak
asko gainera gaztiak
gerora beira zuek zarete
taldeko kimu berriak**

**Katekisteri eskertza,
bildu ginen bai jendetza;
kaxarranka ere atera zuten
eta ez zen ba erreza**

**Bertsoak ziren Lersundin
Duo deno ere berdin
baratzadunok kantatu genun
gauetz euria hasi zedin**

**Irrintzien txapelketa,
hori ez zen berriketa;
horrenbeste andrak parte hartzea
inork ez zun uste eta**

**Hilabeteko haurrekin
gauetz kalera irten ezin;
Debako banda ta dultzañakin
disfrutau deu berdin-berdin**

**Aurtengo festak, jo eta ke,
Gora Deba eta San Roke!
jada gutxiago falta da eta
datorren abuztura arte**

****Doinua: Egun da Santi Mamiña**

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



NEKANE GOIKOETXEA

BARKAZIUAK

Horrela deitzen die gure aitagarrebak oporrei: Barkaziuak! Egun horietan gure lanak "barkatzen" dizkigute nonbait. Libre gara beselako gauzak egiteko. Lanaren espazioa musikaz, liburuez, lagunez edota kirolez betetzeko; nork bere zaletasunez...

Zoritxarrez, urrian sartuta, atzean laga ditugu udako egun luzeak, San Roketako alaitasuna eta bizitzako erritmo lasaia.

Hemen dira berriz ordutegiak, presak eta tempo allegroa.

Aurreko batean, ama berri den lagun batekin hizketan egon nintzen. Umeek ekartzen duten bizimodu aldaketa izan genuen hizpide. Zenbat gauza aldatzen diren ume baten ardura hartzen duzunean. Gauza asko aldatzen badira ere, beharbada gehien aldatzen dena bizitzaren erritmoa da, bere intentsitatea. Egunek, orduak, asteak beste martxa bat hartzen dute.

Zenbat gauza egiten ditugun egunero, aldi berean! Eskerrak oporretan atsedean hartzen dugun.

Umeak zaintzetik ez da deskantsatzen, ordea. Oporretan ere ez da ama/aita titulua galtzen. Baina aukera gehiago izaten ditugu bestelako gauzak egiteko. Umeekin zer ikusirik ez duten gauzak egiteko gosea, ordea, handia izan ohi da eta, beraz, lanak izaten ditugu zer egin era-

bakitzeko...

Horietako bat izaten da San Roketan parrandatxoa botatzea. Gustatzen zait jendea festa giroan ikustea, gaztetxoak gazte egiten ikustea, giro ezberdinak usaintzea, portaerak ikustea. Gustatzen zait ere parrandan lagunekin hitz egitea, barre egitea eta tabernetan dantza egitea. Seguraski haxe da gehien gustatzen zaidana, kuadrillan dantza egitea. Horretarako, baina, musikak lagundu behar du.

Parranda ona dela esateko, musika ona behar dugu hainbatek. Festarako ona den musika esan nahi dut. Ez nuke esango exigenteegiak garenik, berdin heltzen diogu Goseri, Rafaela Carra, Fermin Muguruza edo Calamarori.

Aurten ez dugu, ba, horrelakorik topatu. Musika deslokalizatua entzun behar izan dugu ia taberna guztietan. "La mano arriba, la mano abajo...baila coruro, date la vuelta" eta "loca, loca, loca"... Behin entzuteko, ondo; birritan, tira... baina taberna gehienetan cd bera jira eta buelta gehitxo izan da. Ardi sentsazioak ez digu laguntzen, ez, barkazioak gozatzen. Ez dakit festa kalera eramaten duten gaztetxekoek onartuko dituzten gu bezalako amak... intentsitatea jarriko diogu behintzat!





EUSKAL JAIA 2011

Marka hautsi dugu, bai! Aurtengo edizioan 550 lagunetik gora bildu gara, eta berrikuntzaz beteriko aro berriko XIV. Euskal Jaiaz gozatzeko aukera izan dugu. Kalabazaren pisuaren inguruko desafioa, marmitako lehiaketa arrakastatsua, bertsoak, txosna, erromeria... hau gozamina!! Guztion artean jai euskaldun eta herrikoia egin dugu. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi eta, nola ez, antolaketa lanetan aritu zaretenoi!





BELDUR BARIK! JARRERA SARIA

BERDINSAREAK Beldur Barik! Jarrera sariaren bigarren edizioa deitu du. Oraingo honetan, lehiaketak "errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, erantzukidetasunean eta indarkeria tinko baztertzean, oinarritutako jarrera eta jokabideak hartuta, emakumeenganako egungo desberdintasun-egoerari neska-mutilek aurre nola egiten dieten erakusten dituzten adierazpen artistikoak aitortu, baloratu eta bultzatu" nahi ditu.

Lanak aurkezteko epea azaroaren 11n amaituko da, eta 1.000 euroko sari bana dago 2 modalitateetan (12-17 urte artekoentzat bata, eta 18-26 artekoentzat bestea).

Sari orokor horretaz gain, Debako Udaleko Berdintasun Sailak **tokiko proposamen onenak** sarituko ditu. "DEBA Beldur Barik" sariak ere aipatutako bi kategoriatan banatuko dira, eta 250 euroko sari bana egongo da jokoan. Informazio gehiago edo lehiaketaren oinarriak: www.beldurbarik.org edo www.deba.net atarietan.

Udaleko Berdintasun Saila



Egutegi berria prestatu dute Burdin Kurutz Mendi Taldeak eta Luzarok

Mendi irteeretan parte hartzeko deia egin dute



Inguruko zenbait mendi eta ingurune ezagutzeko aukera eskainiz, Burdin Kurutz Mendi Taldeak eta Luzaro ikastetxeak 2011-2012 ikasturterako mendi irteeren egutegi berria aurkeztua dute dagoeneko.

Irailean eta urrian egin dituzte lehenbiziko irteerak, eta azaroaren 13an izango da hirugarren txangoa, Entziako mendilerroko Ballo mendira.

Irteerak 3. mailatik gorako ikasleei zuzenduta daude. Dena den, gurasoekin zein laguntzaileekin, txikiagoak ere onartzen dituzte. Mendi irteerak doakoak dira ikasleentzat, Kirol Eskolarraren baitan baitaude. Bazkideek, nagusiek eta gurasoek, aldiz, ordaindu egin behar izaten dute.

Hitzorduak umeei zuzenduta daudenez, ibilbide erraz eta erosok proposatzen dituzte arduradunek. Goizeko 8:30ean irteten dira estalitako pasealekutik (autobus geltokitik) eta txango gehienak egun osokoak izaten direnez, 16:00etan edo 17:00etan itzultzen dira Debara.

Egun erdiko irteeraren bat ere proposatu dute.

Antolatzaileek diotenez, gainera, zenbait baldintza betez gero, bi eguneko irteera antolatzen ere saiaturko dira maiatzaren azken astebururako. Bestalde, gogorazi dute ikasturte bukaerako azken irteeran, Andutz Egunean, parte hartzen duten ikasleen artean opari banaketa ere egingo dutela.

Horiek hala, beste behin ere ibilaldi hauetan parte hartzeko deialdia egin diete ikasle, guraso, lagun zein bazkideei. Animatu!!

**Hona hemen egitaraua:

- Azaroak 13: Ballo (Entzia mendilerroa).
- Urtarrilak 15: Gorla-Irimo-Urretxu.
- Otsailak 19: Urkiola-Urkiolagirre-Besaide-Udala.
- Martxoak 11: Ibilaldi Neurtua (goiz pasa).
- Apirilak 22: Kanbo.
- Maiatzak 26-27: Bi eguneko irteera (zehazteko).
- Ekainak 10: Andutz Eguna.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Montrealetik bidalitako postalak irabazi du saria

Montrealetik idatzitako postal batek lortu du Zuhatzak antolatutako lehiaketako saria. **Eider Duñabeitia** bidalitako postalaren alde egin du epaimahaiak, eta bi lagunentzako afari goxo bat jaso du trukean. Zorionak, beraz!!

Euskara elkarteak postal lehiaketaren bigarren edizioa antolatu du aurten, herritarren oporraldiak ezagutu eta uda partean haien nondik norakoen berri izateko asmoz. Bada, edonon izanda ere euskaraz idaztea posible dela erakutsi duzuen guzti-guztiori eskerrak eman nahi dizkizuegu lerro hauen bitartez.

Albokoa duzue postal saritua.

Kaixo!

Argazkian ikus daitekeena Montreal Hiria da, hegoaldean duen irlarekin batera.

Kanadan, orokorrean, leku askotako jendea bizi da, eta Montreal ez da salbuespen bat. Hain zuzen, hori da erakargarria egiten duena, kultura aniztasuna. Bertako jendea benetan maitagarria da, eta ni bezala etorritako jendea beraien etxean sartzerakoan familiakoak izango bagina bezala sentitzea lortzen dute.

Hemen hilabete bat igaro ondoren esan dezaket merezi duela bidaiak eta etorkizunean berriro etorri nahi dudala. Zuek ere oporretan ez badakizue nora joan hiri eder hau gomendatzen dizuet. Ikusi arte,

Eider Duñabeitia



Mintzalagun izan nahi duzu? Badakizu... Zu gabe ezin. Zatoz eta egin!

Laster ekingo dio Mintzalaguna egitasmoak bere ibilbideari. Euskaldun berriei edo euskaraz jariotasunez hitz egiteko zailtasunak dituztenei euskara praktikatzeko aukera eskaintzen die ekimenak, eta dagoeneko izena emateko epea zabalik dago, urriaren 28a arte. Euskara modu natural eta informalean erabiltzeko helburua oinarri hartuta, Mintzalagunarekin bat egiteko eta bertan parte hartzeko deia egiten du Zuhatza euskara elkarteak. Egitasmo honen inguruko informazio gehiago behar izanez gero edota zuzenean izena eman nahi duenak Zuhatzara deitu (943 19 13 83) edo elkarteko bulegotik pasa baino ez du egin behar (astelehen eta astearteetan, 18:30etik 20:30era). Animatu! Zatoz eta egin!

Kalitate Turistikoaren 25 diploma banatu dituzte Debabarrenean

Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin Programa burutzen diharduten Debabarreneko 25 enpresa eta erakundeak Kalitate Turistikoaren diploma eta agiria jaso zuten urriaren 3an Getariako Balentziaga Museoa burutu zen ekitaldian.

Programaren helburua enpresen antolakuntza, barne kudeaketa eta bezeroen asebetetze maila hobetzea da. Lau urteko iraupena du ekimenak eta Eusko Jaurlaritzak da arduraduna, Euskalit erakundearen bitartez. Dena den, Debegesa arduratzen da programa kudeatzeaz, bertan parte hartzen duten eskualdeko era-

kundeekin harreman zuzena izateaz eta aholkulari lana egiteaz.

Guztira 25 dira eskualdeko sarituak. Deba eta Itziarri dagokienez, hauek lortu dute ziurtagiria: Zumardi Pentsioa, Urgain jatetxea, Debako Turismo Bulegoa, Lasturko aterpetxea, Zelaietaberi landaturismoa, Zubeltzu-Torre nekazaturismoa, Goikola nekazaturismoa, Itxaspe apartamentuak, Saka nekazaturismoa, Itxaspe kanpina, Debaventura Agaiti, Arriola-Txiki nekazaturismoa, Donibane nekazaturismoa, Txindurri Iturri nekazaturismoa eta Eleizondo Landaetxea.



Aipatutako diploma ez ezik, Urgain jatetxeak **Kalitatezko Kaiku saria** ere lortu berri du. Kaiku sariak euskal sukaldaritzak tradizionala sustatu eta herri txikietako jatetxeak bul-tzatzea helburu duen Ja(ki)tea elkarteak banatzen ditu. Urgainek "1980. urtetik gastronomia onaren sinbolo izategatik" irabazi du sari hori.



**DEBAKO
BOTIKAK**

GOARDIA 24 ORDUZ

• **ZALDUEGI:** Tel. 669 262 201

Urriak: 21, 22, 23, 31. Azaroak: 1, 2, 3.

• **BURGOA ZUAZO** Tel. 667 338 890

Urriak: 17, 18, 19, 20. Azaroak: 4, 5, 6, 14, 15, 16, 17.

Larunbat goizetan beti bat irekita:
9:30 - 13:30



ABEL

Kristaldegia

*Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak*

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net

“Bioaniztasuna: Natura 2000/Geoparkea”

Hezkuntza eta kontzientziazio proiektu berria abiatu du Debanaturak

Urritik aurrera eta abendua bitarte, Biodibertsitatea eta Euskal Kostaldeko Geoparkearen barruan eta inguruan dauden inguruneen balioak zabaltzeko, hezkuntza, kontzientziazio, dibulgazio eta ingurumenboluntaritzaren ekintzen programa garatuko du elkarteak.

Azken urteetan ipar-mendebaldeko Gipuzkoan natura-gune eta lurralde anitz izendatu dituzte ordenazio formen bitartez. Proiektu honetako lurralde eremuak ondorengo lekuetan kokatzen dira: **Deba-Zumaia Biotopoa, Zec-Arno, ZEC-Izarraitz eta ZEC-Urola** Itsasadar Natura Sareko espazioak, Deba Itsasadar Zonalde Hezeak, eta **interes naturala** daukaten bestelako lekuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoak, Lastur, Olatz, Goltzibar, Astigarrabia edo Kilimoi bailarak, adibidez. **Euskal Kostaldeko Geoparkeko** lurraldean sartuta daude guztiak, osotasunean edo partzialki.

Bada, Debanaturak Euskal Kostaldeko Geoparke izendatu berriaren barruan eta inguruan kokatzen diren natura-guneen balioak eta bioaniztasuna babestearen garrantziaz ohartarazi nahi ditu herritarrak. Eta horretarako abiatu du, hain justu, aipatutako hezkuntza, sentsibilizazio eta ingurumenbirsorkuntza programa berria. Ekimena Bioaniztasunaren Zuzendaritza eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen-Partaidetzaren kolaborazioarekin burutuko da.

Hezkuntza eta kontzientziazio proiektuak gure lurraldeko natura-txokoen bioaniztasuna, geodibertsitatea zein ondare kulturala ezagutarazi nahi ditu. Eta programaren helburua hori izanik, erakusketa ibiltaria, bisita gidatuak eta bestelako ekintza batzuk ere hartzen ditu bere baitan.

Erakusketa ibiltaria, esaterako, programaren jar-

dun-eremuaren barruan dauden herrietako ikastetxe, udaletxe eta elkarten eskura jarriko du Debanaturak, astebeteko iraupenarekin eta doan. Hori hala, Deba, Mutriku, Zumaia, Zestoa, Azpeitia, Azkoitia eta Mendaroko udalerrietatik pasatzeko aukera eskainiko du elkarteak.

Erakusketa ibiltariaz gain, proiektuak bioaniztasunari buruzko **ikus-entzunezko dokumental bat** ikusteko aukera eskainiko die ikastetxeei eta herritarrei. Gainera, dokumentalean parte hartzeko gonbidapena ere egingo zaie herritar guzti-guztiei.

Bestetik, **“Bioaniztasuna Far West Argazki Lehiaketa”** ere abian da dagoeneko (oinarriak www.debanatura.net webgunean ikus daitezke). Lehiaketa aintzat hartuko dira Bioaniztasuna programaren txangoetan bertan egin-dako argazkiak.

Izan ere, Geoparkearen barruan eta inguruan dauden ondare kulturalak, bioaniztasuna eta geodibertsitatea ezagutzeko **ibilbide ziklo berri bat** ere bada- kar eta proiektuak. Marea arteko zabalgunek eta Flysch itsaslabarretik, padurak, aretzak, dunak eta

haranak zeharkatuko dituzte, itsasertz aurreko mendietara iritsi arte. Irteerak Arno eta Izarraitz gailurretara, Artzainerreka, Olatz, Astigarrabia, Lastur eta Goltzibar bailaretara edota Deba-Zumaia Biotopora egingo dira.

“Bioaniztasuna zainduz” Ingurumen-boluntaritza Programa delakoaren barruan, **landare inbaditzaileen deuseztapena** (Deba eta Urola itsasadarretan zein Mijoa errekan) eta **ibaiko landaretzaren berriztapena eta Lasturko “Arboretoen” sorkuntza ekimenak** ere proposatzen ditu Debanaturak.

Aipatutako jarduera guztien berri ematen jarraituko du elkarteak. Beraz, badakizue, adi deialdiei eta animatu horietan parte hartzera!

BERRIKETAN GAZTEA

2011ko urria

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrear Surtua.

KILOMETROAK JAIRA JODATEKO AUTOBUSA ANTOLATU ZUTEN DBHKOEK



Mendata institututik autobusa antolatzten dute 4.DBHkoek ikasbidaiarako dirua ateratzeko. Autobus handi bat eta beste txiki bat antolatu ohi izan dira, debarrek ere Kilometroak-eko giroa alaitzeko. Kilometroak jaialdiaz gain, Ibilaldirako ere antolatzen dira autobusak, eta hauen antolakuntza 3.DBHkoen esku egoten da. Urte askoan zehar horrela egin izan da, elkarri lekukoa pasatuz, eta aurrerantzean ere halaxe egitea aurreikusten da.

Kilometroak Gipuzkoako ikastolei laguntzeko urriko lehen igandean egiten den egun osoko jai bat da. 1977an egin zen lehen aldiz, Beasain-Lazkaon, eta aurten Azpeitian antolatu da, Ikasberri Ikastolaren alde.

Aurten, beste urteetan antolatu den eran, hainbat gunez osatutako ibilbide bat egin da. Egun osoan zehar kontzertu eta ikuskizun ugari izan dira: Xutik, The Sparteens,

Anje Duhalde, Ken Zazpi, Revolta Permanent, Betagarri, Ze esatek!, Lauroba, Kasik, Trikizio, Egurra ta Kitto, Des-kontrol, Imuntzo eta Beloki, Sendaezinak, Pantxoa eta Peio, Kupela, Dj Abiba eta Oihan Vega. Bestalde, ikuskizunak ere izan ziren, hala nola Kirol ego-kitutako jolasak, Irrien Lagunekin kanta eta dantza, Hipo eta Tomas, Urtxintxa jolas-musika emanaldia, Euskal Herriko eta Alemaniako segalariak, Motozerra erakustaldia, Bat-batean Zirko, Poxpolo eta konpainia, Sahatsa eta Itsasi Dantza Taldeak, Galtzagorri Inaxito, Txan magoa, bertso saioa, herri-kirolak, Zezensuzkoa, tailerrak, puzgarriak... eta egun osoan zehar Debako Elektrotxaranga, eta beste hainbat talde.

Mendatako ikasleek aukera bikaina izan dute Azpeitirako joan-etorria lasai-lasai autobusean egiteko, hango ekitaldietan sutsuki parte hartzeko eta lagunarteaz gozatzeko.



“Eskola honetan familia handi batean bezala sentitzen naiz”

Iñigo Elorza Matematikako irakasle berria da. 45 urteko zarautarra. Fisika ikasketak egin zituen Leioako Zientzia fakultatean. Dagoeneko 16 urte daramatza irakaskuntzan, eta Mendata institutura datorren hirugarren aldia da.



Ondo egokitu al zara ikastetxean?

Bai, oso ondo egokitu naiz. Ikastetxe txiki eta oso atsegina da; ez da beste ikastetxe batzuk bezain handia, ikasle gutxiago daude-eta. Horrela, familia handi batean bezala sentitzen naiz.

Gustuko al dituzu ikastetxeko instalazioak?

Aparkalekua eta aldapa kenduta, gustuko ditut! Aparkalekua oso gaizki dago, eta txikia da. Eta aldapa, berriz, oso aldapatsua da, eta edozein egunetan desatsegina den zerbait gerta daiteke, oso arriskutsua da-eta.

Ondo moldatzen al zara ikasleekin?

Batzuetan bai, eta beste batzuetan ez hainbeste, gauza guztietan bezala. Baina orokorrean ikastetxe honetako ikasleak oso jatorrak dira.

Matematikaz gain beste zerbait irakasten duzu?

Bai, Informatika ere ematen dut.

Zer klasetan ematen duzu Matematika? Eta Informatika?

Matematika, 1B, 3A, 3B eta 4B-n irakasten dut. Informatika bigarren eta hirugarren mailan.

Beste zein herritan egon zara irakasten?

Herri askotan egon naiz: Zarautzen, Zumaian, Eibarren, Ermuan, Lasarten, Hondarribin, Donostian, Irunen, Elgoibarren...

Zer gustatzen zaizu egitea denbora librean?

Asko gustatzen zait mendira eta oporretara joatea. Oporretara askotan bakarrik joaten naiz, autoa hartu eta hortik joaten naiz. Beste askotan lagunekin ere joaten naiz.



INKESTA

OPORRAK ATZERRIAN

Oporrak amaitu berri direla eta, atzerrira joan diren ikasle-
ei ondoko galdera hauek egin dizkiegu:

- 1.- Non egon zara udan? Norekin?
- 2.- Zergatik joan zara?
- 3.- Egokia iruditzen al zaizu kanpora joatea hizkuntzak ikastera?
- 4.- Zer moduz pasa duzu?
- 5.- Aholkatuko al zenioke norbaiti oporrak horretarako aprobeztatzea? Zergatik?



Nagore Urdangarin:

- 1.- Ingalaterran egon naiz, bertako familia batean.
- 2.- Batetik ingelesa ikasteko, eta bestetik ondo pasatzeko.
- 3.- Bai, asko ikasten delako.
- 4.- Primeran pasatu dut.
- 5.- Bai. Primeran pasatzen delako, eta maila aurreratuagoa lortzen delako.



Aitor Muguruza:

- 1.- Devon-en (Ingalaterra) egon naiz, familia batekin bizitzen.
- 2.- Ingelesa ikasteko.
- 3.- Bai, oso egokia iruditzen zait hizkuntzak erabiltzen diren herrian bertan ikastea.
- 4.- Ondo pasatu dut.
- 5.- Bai. Ondo ikasten delako ingelesa.



Mikel Sagarna:

- 1.- Ingalaterran, familia batean.
- 2.- Ingelesa ikasteko eta, bide batez, ondo pasatzeko.
- 3.- Bai, asko ikasten delako.
- 4.- Oso ondo pasatu dut.
- 5.- Bai. Primeran pasatzen da. Gainera, ingeles maila aurreratuagoa lortzen da.



Iñigo Muguruza:

- 1.- Devon-en (Ingalaterra). Familia batengana joan naiz.
- 2.- Ingelesa ikasteko.
- 3.- Bai, asko ikasten delako.
- 4.- Ondo pasatu dut.
- 5.- Bai noski, hobeto ikasten delako.



Nora Deba:

- 1.- Los Angelesen egon naiz udan, bertako familia batean.
- 2.- Ingelesa hobeto ikasteko.
- 3.- Bai, asko ikasten delako.
- 4.- Oso ondo pasatu dut.
- 5.- Bai, aholkatzen dut. Ondo dagoelako.



Jon Yarza:

- 1.- Atholne-n (Irlanda) egon naiz, bertako familia batean.
- 2.- Ingelesa ikasteko.
- 3.- Bai, hizkuntza hobeto ikasten delako erabiliz.
- 4.- Oso ondo pasatu dut.
- 5.- Bai, ondo pasatzen delako eta hobeto ikasten delako.



Maialen Salgado:

- 1.- Londresen egon naiz, bertako familia batean.
- 2.- Ingelesa ikasteko.
- 3.- Bai, asko ikasten delako.
- 4.- Oso ondo pasatu dut.
- 5.- Bai, edonori aholkatuko nioke, asko ikasten delako.



Jon Amutxastegi:

- 1.- Atholne-n (Irlanda). Familia baten etxera joan naiz.
- 2.- Ingelesa ikasteko.
- 3.- Bai, ondo ikasten delako.
- 4.- Oso ondo pasatu dut.
- 5.- Bai, gero eskolan hobeto ibiliko zarelako ingelesean.

EGILEAK: LEIRE ALBERDI ETA NEREA AGIRREGABINA

JANGELA BERRITUA



Aurtengo ikasturte hasieran jangela berrituta dagoela konturatu gara. Aurreko bi urteetan, sukaldearen ondoan jangelara sartzeko sarrera bat zegoen, eta handik sartzen ziren Luzaroko haurrak. Baina sukaldea handitu dute, eta ikasturte honetatik aurrera, lehen sarrera zegoen tokian orain sukaldea dago; horregatik, orain, ikasleak lehen erlijioa ematen zuten gelatik sartzen dira jangelara. Lana erosoago egiteko aukera dute, beraz, sukaldari eta zerbitzariak.

HOROSKOPOA

ARIES



Dirua: Batzuetan gauza merkeak garestiagoak ateratzen dira. Kontuz ibili!
Maitasuna: Maite duzun pertsonarekin saiatu normalean baino hobeto konpontzen.
Lagunak: Zuk uste dituzunak baino gehiago dituzu, aprobetxatu.



LIBRA

TAURUS



Dirua: Ondo ibiliko zara, baina ondo zaindu, ez alperrik gastatu.
Maitasuna: Bikotea baduzu ondo joango zaizu, eta bestela, pertsona berezi bat ezagutuko duzu.
Lagunak: Saiatu haserreetatik ihes egiten.



SCORPIUS

GEMINI



Dirua: Lan bat aterako zaizu.
Maitasuna: Zure bikotearekin ez dira gauzak oso ondo joango.
Lagunak: Ekintza gehiago egin beraiekin.




SAGITTARIUS

VIRGO



Dirua: Diru gabe geratuko zara horrela jarraituz gero.
Maitasuna: Ez duzu zorte handirik izan, baina azkar aurkituko duzu.
Lagunak: Asko maite zaituzte. Ez aldatu.



CAPRICORNIUS

CANCER



Dirua: Beti bezala aurrera zoaz.
Maitasuna: Besteek berari buruz esaten dutenak ez du axola, zuk pentsatzen duzunak bai, ordea.
Lagunak: Konfiantza gehiago behar duzu beraiangan.




AQUARIUS

LEO



Dirua: Ez zara aberatsa, baina oraingoz ondo zaude diru kontuetan.
Maitasuna: Inoiz espero ez duzun pertsonarekin elkartuko zara.
Lagunak: Oso ondo zabilta, baina ez zaitetz deskuidatu.



PISCIS

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALDEA 2011-2012

Nerea Agirregabiria
 Leire Alberdi
 Sara Anton
 Ainhoa Azkarate

Ane Baroja
 Alaitz Escudero
 Ena Esmoris

Koordinatzailea: Kontxi Bengoetxea

Eskualdean “Gure Balioak” sustatu nahian

Debegesa garapen agentziak bultzatuta eta Debabarreneko herritar talde batek osatutako foroa buru duela, **Gure Balioak** izenburuko proiektua sortu da, gure eskualdean gizarte-balioak sustatu eta eskualde jasangarri eta lehiakor bat lortzeko bidean balioen garrantziaz ohartarazteko helburuarekin. Egitasmo honen aurkezpen ekitaldia irailaren 27an egin zuten, Eibarren, eta jende ugari bildu zen bertan.

Integritatea, errespetua, ekintzailetasuna eta elkarlana/lankidetza dira eskualdean bultzatu nahi diren lau gizarte-balioak. Debegesak badarama denbora gizarte-balioen inguruan hausnarketa egin, eta Debabarreneko 100 bat lagunek parte hartu dute hausnarketa prozesu horretan. Gogoeta saio horietatik ondorioztatu da, hain justu, eskualdean bultzatu beharreko lau gizarte-balioak aipatutako horiek direla. Proiektuaren **izaera irekia eta parte-hartzailea** nabarmendu dute ekimenaren sustatzaileek.

Egitasmoaren baitan jarduera ezberdinak antolatuko dituzte. Azaroaren 10ean, adibidez, **Gure Balioak Saria 2011** banatuko dute, eskualdeko pertsona edo erakunde baten ibilbidea gorai patuz. Ekimenaren xehetasunak ezagutu edo bertan parte hartzeko bideen berri izateko, www.gurebalioak.com webgunera jo daiteke. Facebook eta Twitterren (@gure_balioak) ere presente dago Gure Balioak.

Igon Mantzisor, nagusi Akoako Biran eta Aiastian

Ikasturte berriari gogor ekin dio Igon Mantzisor debarrak. Izan ere, iraileko hirugarren asteburuan Akoako VI. Bira lasterketa izan zen Zestoako Akoa auzoan, Zestoako Atletismo Taldeak antolatuta, eta Igonek irabazi zuen, hirugarren urtez jarraian, lasterketako txapela gizonetzkoetan (30:09). Emakumetzkoetan, berriz, Raket Aperribai legazpiarra nagusitu zen (37:30).



Bestetik, urriko lehen asteburuan Mantzisorrek berak irabazi zuen Elgoibarko San Migelgo V. Korrika Igoera ere. 20 minutu eta 45 segundotan egin zuen Plaza Handitik Murkaikupe frontoirainoko ibilbidea (5 km.).

Sergio Salgado, Euskadiko squash selekzioarekin

Irailean Madrilen jokaturako erkidego autonomikoen arteko txapelketan, Euskadik 11. postua eskuratu zuen, bertako madrildarren aurkako norgehiagokan galdu ostean. Eibarko Klub Deportiboko ordezkaria den Sergio Salgado debarra izan zen taldean eta, berak 3-1 irabazi arren, bestelako emaitzek ez zieten lagundu aurrera egin. Partidu hori galduta, Gaztela-La Mantxakoekin jokatu zuten hurrengoa eta hor 3-1 nagusitu ziren Euskadiko ordezkariak.

lankidetz
elkarlana

Debabarrena gara
www.gurebalioak.com

gurebalioak
DEBABARRENA



36KO IR

Irailaren 23an bete zire
aldeko tropak herr

Testua: Xabier Laka

Irailaren lehenengo egunetan borroka gogorak gertatzen dira Irungo inguruetan; miliziano taldeek, nola edo hala eutsi diete Beorlegi koronelaren indar matxinatuei; munizioak gero eta urriagoak dira dituzten armak hornitzeko. Erasoari ezin eutsi eta, irailaren bostean, Irun faxisten esku gelditzen da; mugaren kontrola bereganatu eta Donostia ekialdetik erasotzeko prestatzen ari dira.

Altxatuen tropek aurrera egiten duten heinean gero eta handiagoa da Bilborantz doazen errefuxiatuen kopurua. Batzuk errepidea erabiliz eta besteak, trena hartu eta Debaraino iritsi ondoren, zubi zaharretik, kostako bidea hartuta Bizkai aldera abiatzen dira. Debako tren geltokian, Loiolatik etorritako gudari jeltzaleek kontrolak ezartzen dituzte. Errefu-

xiatuekin batera datozen miliziano taldeek, armatuak gehienak, kontrolatu asmoz, hauei armak kendu eta egoera baretzea dute helburu.

Iraila aurrera doan heinean, Debatik igarotzen diren errefuxiatu kopuruak handitzen doaz eta, istiluak pizten dira. Ihesean doan miliziano talde batek, herriko Korreos-eko arduraduna tirokatzen du, harekin gorabehera batzuk izan ondoren; "El Negus" ezizena zuen funtzionarioa zerraldo gelditzen da. Hotel Debako jabea zen Idarreta jauna ere hilik gertatzen da egun berean. Gehiegikeri hauek

ekiditeko asmoz, Eusko Alderdi Jeltzaleko gudari talde bat abiatzen da Debara, ordurako, Loiolatik Saturrarana joanak baitzeuden. Donostia irailaren

hamabian galtzen da, eta kostako bidea erabiliz, Bizkaia aldera abiatzen dira matxinoak. Bidean tokian tokiko borrokak izango dituzte. Irailaren hogeita bialdi Arroatik gora abiatuko dira Cayuela koronelaren tropak.

Tartean dira falangista talde bat eta gerra hasieratik borrokan ari diren erreketek nafarrak. 634 errepidean gora datozela, Elorrixako bidegurutzea pasa ondoren, zuzen gune luzea gainditu eta, Santuaran baino lehen

dagoen errebuelta bihurria hartzerakoan, Itsaspe gainetik eraso jasoko dute. Miliziano talde handi batek eraso ditu. Goitik behera tiratzen dutenez, eraso gainditzeko kanoi baten laguntza eskatu, kanoia Sorazu mendin kokatu eta, tiroak zuzentzeko Otakor gainean kokatzen da artilleri talde bat. Itsaspeko mendixkak ez dira tiro leku erosoak kanoientzat. Hala ere, faxistek baliabide ugari dituzte, bai arma aldetik, bai soldadu aldetik, eta milizianoen borroka gogorrek ezingo diote aurrean duten ejertzitoari eutsi. Eguna bukatzera doa eta nazionalak aurrera egin dute. Biharamunean Debara sartuko dira; batzuk Arriola gainetik datozen bitartean, beste batzuk Santa Katalina gainera azalduko dira.

Borroka hauetan

Abertzale eta ezkertiar ugari izan ziren garai hartan Debatu eta borrokarako bidea hautatu zutenak

RAILA

75 urte Frankoren n sartu zirela



sei anarkista bilbotarrek galduko dute bizia: Juan Serranok, Ignacio Millonek, Daniel Vallejok, Aurelio Vallejok, Tomas Alvarezek, Joakin Moralek eta Jose Luis Arandak. Arronamendi inguruko malda batean hainbat gorpu lurperatu ei zituzten; gaur egun oraindik kokapena zehazteko dago.

Azteraka doazen errepublikarrek zubi zaharra, lehertzeko asmoz, dinamitaz bete duten arren, ezin izan dute sabotai burutu, Arriola eta Santa Katalinatik jasoko dituzten erasoak ihesera bultzatu baititu. Altxatuak herrira sartu aurretik, debar ugarik herritik alde egitea erabakiko dute: 547 lagunek. 1934ko erroldan 3.974 biztanle agertzen diren bitartean, 1940koan 3.745 besterik ez daude. Gerrak eta ondorengo errepresioak

gogor astindu zuten herria. Herritar ugarirentzat gerra bezain latza izan zen ondoren etorri zen errepresioa; adibide gisa, Pedro Garcia Ansola “Kantoi”k jasandakoa: Esteban Antiarekin batera Debako Udalean zinegotzi lanetan aritutakoa, biak sozialistak eta U.G.T-koak; Kantoi herriko sindikatuko presidente lanetan azaltzen zaigu sasoi hartako dokumentuetan. Faxisten altxamendua gertatu eta berehala, herriko “Junta de Defensan” ageri da, Lanen Komisioko buru gisa. Herrian altxamendurekin bat egiten zuten artean atxilotetak burutu ziren, eta Agirre jauregiko sotoetan pilatu.

Anarkista talde ugari ibili zen atxilotu hauek bertatik atera eta akabatzeko asmotan. Markiegi Alkateak aurre egingo die eta herritar asko izango ditu alboan, Kantoi tartean delarik. Molaren erreketek Debara sartu aurretik ihes egin ondoren, borrokan aritu baitzen, 1938ko abuztuan Epaitegi Militar batek heriotza zigorrera kondenatzen du, Herriko Defentsa Junta partaide izatearen akusaziopean. Junta horren aginduz atxilotutako hainbat preso fusilatu edo erail zituztela argudiatuz; nahiz eta bere kasua berri-kusten denean, 1942ko azaroan, herriotza zigorra hogeitaz kartzela zigor bilakatu zen.

Kondena berri hau lortzeko, sasoi hartan herriko Alkate zen Jose Maria Eizagirre Mendikute jaunak bermatutako txostenarekin batera, Tolosako frantziskotar baten, Falangeko ikuskaritzaren eta Debako

Erretorearen sinadura doa. Txostenean zera dio: “Le-kuko baten arabera Junta kiderik moderatuena izan zen Pedro Garcia; gainera, eskuineko atxilotuen bizia eta egoera babesten nabarmen saiatu zen”.

Abertzale eta ez-kertiar ugari izan ziren



garai hartan Deba utzi eta borrokarako bidea hautatu zutenak; baina, matxinoekin bat egin zutenen zerrenda ez da laburragoa. Herritarrez aparte, aipatzekoa da hainbat udatiarrek izandako jokaera.

Bat aipatzekotan Ramon Sierra Bustamantaren kasua aipatuko dugu. Sierratarrek “ensantxean” lur sail bat erosi eta txaleta eraiki zuten, Txurreriaren ondoan dagoena hain zuzen; “Sierra-enea” jarri zioten izen eta hala izaten jarraitzen du, nahiz eta jabe desberdinak dituen. Ramonen anaia Luis, militar erretiratu, matxinoekin bat egiteko asmoz zebilela, errepublikarrek atxilotu eta Ondarretako kartzelara eramane zuten. Faxistek egindako bon-

bardaketak piztu zuten haserrealdietan hainbat “saca” egin ziren Donostiako kartzelatik. Horietako batean fusilatu zuten Luis Sierra Bustamante jauna. Ramon orde, kazetaria izanik, Gonzalo Quei-

po de Llano jeneralarekin arituko da “Radio Sevilla”tik matxinoen aldarri basatiak zabaltzen. Gipuzkoako frontea finkatzen denean, Gobernadore Zibil izendatzen dute Ramon eta, bide batez, “El Diario Vasco”ko zuzendari.


Aipatzeko modukoa da egunkari honen historia. Donostian 1934ko azaroan eratu, aristokrata eta monarkikoen diru-laguntzek sortu eta mantenduko dute hasiera batean. Zorrak gainditu ezinik ibili ondoren Juan March Ordinas bankeroak erosi zituen akzio gehienak. Pertsonaia honek, Primo de Riveraren diktadurapean neurrigabe aberastu ondoren, San-

jurjo jeneralaren Estatu kolpe saiakera eta, ondoren, Frankorena babestu, bultzatu eta finantzatu zituen. “Diario Vasco”-k, uztailaren 18an zera zioen bere lehen orrialdean: “HOY HARA BUEN TIEMPO”. Esaldia altxamendurako prest zeuden taldeei zuzendua zegoen, aurretik adostutako pasahitza, eguna iritsi zela esateko. Donostian Loiolako kuartelak, borroka gogorren ondoren, errenditu zirenez, errepublika zaleek, egunkari honen bulego eta inprentak desjabetu eta, bertan egin eta inprimatu zuten “Frente Popular” egunkaria, Molaren erreketek eta mairuak sartu ziren arte.

Hau guztia gertatu zela 75 urte bete dira aurtten. Izan zituen ondorioak ikusirik eta, batez ere, sasoi hartako herritarrek egin zituzten ahaleginak ikusirik, harrigarria da gure axolarik eza. Gertatutakoa agerian gelditu dadin erakunde ofizialek ezer gutxi egin badute, herritarrok ere ez gara oso fin ibili.

Jose Mari, Karmen eta Maritxu zuekin gorde duzuen egunen batean argituko dugulakoan, jaso ezazue errespetuz beteriko agur hau.

**Dena den,
matxinoekin
bat egin
zuten
herritarren
zerrenda
ere
ez da
laburragoa**



AGENDA

Urriak 15, larunbata:

-20:00etan. **HOSTOAK Ikuskizuna.** Oreka TX, Kukai Dantza Taldea eta Amaren Alabak. Aldats pilotalekuan (Udaleko Euskara Sailak antolatuta).

Azaroak 1, asteartea:

-Itziarko Peria: Goizetik hasita, ganadu feria.

Azaroak 13, igandea:

-8:30ean. **Mendi irteera:** Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatutako irteera, Entziako mendilerroko Ballo mendira. Autobusa estalitako pasealekutik irtengo da.

-10:00etan. **Ibai Lagun 2011. Deba ibaia garbitzeko I. jardunaldia:** Debegeak jardunaldi hauek antolatu ditu herritarrak ibaian biltzen diren hondakinen inguruan sentsibilizatzeko helburuarekin. Izena emateko epea urrian amaituko da. Informazio gehiago: 943 82 01 10 edo www.debegesa.com.

LEHIAKETAK

-**Bizenta Mogel XXX. Ipuin Lehiaketa,** Azkoitiko Kultur Elkarteak antolatuta. 18 urtetik gorakoen-tzat da, eta euskaraz idatzitako ipuinak aurkeztu beharko dira, urriaren 31a baino lehen. Informazio gehiago: Azkoitiko Udalean.

-**Beldur Barik II. Lehiaketa:** Emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten duten adierazpen artistiko guztiak onartzen dira. Proposamenak bidaltzeko epea azaroaren 11n amaitzen da. Oinarriak: www.beldurbarik.org edo www.deba.net.

BIOANIZTASUNA: NATURA 2000/GEOPARKEA

Abendua bitarte, Debanatura elkarteak jarduera ugari antolatu ditu "Bioaniztasuna: Natura 2000/Geoparkea" proiektuaren baitan: erakusketa, argazki lehiaketa, ibilbide zikloa... Informazio gehiago: aldizkari honetako 10. orrialdean zein www.debanatura.net webgunean.



ERAKUSKETAK TURISMO BULEGOAN

-**Jose Luis Martinezen** erakusketa, Turismo Bulegoan. Urriaren 21etik 30a bitarte.

-**Juan Antonio Palacios.** Naturari buruzko argazkilari-tza erakusketa, Turismo Bulegoan. Azaroaren 4tik 13a bitarte.

***Turismo Bulegoko ordutegia:** Astelehenetik ostegunera: 10:00-14:00; ostiral eta larunbatetan: 10:00-14:00/17:00-19:30; igande eta jaiegunetan: 10:00-14:00.

IKASTAROAK

-**PERKUSIO TAILERRA, Xabier Azkarateren** eskutik, Debako Musika Eskolan. Urriaren 22an eta 29an, 10:00etatik 13:00ak arte (atseden txiki bat hartuz). Izena eman duen jende kopuruaren arabera, posible da arratsaldez beste talde bat sortzea.

-**EGUR TAILA: Zuriñe Gredillak** egur taila tailerrak eskainiko ditu urritik eta ekaina bitartean. Hilabetero egongo da horietan izena emateko aukera, eta talde bakoitzean zortzi lagun arituko dira gehienez. Klaseak astean bitan (3 ordu astean) izango dira. Informazio gehiago: 666 72 03 13 telefonoan edo Kalbeton Zumardiko 5.ean (9:30-13:00 eta 16:30-19:00).

-**KZguneak** ikastaro ugari eskainiko ditu urrian (arratsaldez) eta azaroan (goizez): MUGIPUZKOA, MetaPosta I eta II, OpenOffice Writer, Internet+e-Administrazioa... Izena emateko, kontsultatu www.kzgunea.net edo deitu 943 02 94 40 zenbakira.

-**Udako Euskal Unibertsitateak** ikastaro eskaintza zabala prestatu du udazkenerako. 9 ikastaro antolatu ditu, hiru jakintza alorretan sailkatuta: informatika eta teknologia berriak, giza eta gizarte gaiak, eta zientziak eta osasuna. Denak Eibarren, Markeskua jauregian emango dira. Informazio gehiago: www.ueu.org.

URTE ASKOTARAKO!!

Zorionak gure lankide
izateagatik, Jose Luis!!
Jubilazioan
ere... zu beti gatz!

Udaltzainen partez



JAR EZAZU ZURE
PUBLIZITATEA
ALDIZKARIAN!

berriketan@zuhatza.com



haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



TAILAGILEA

Zuriñe Gredilla Kareaga

Kalbeton Zumardia, 5
Tel.: 666 720 313
txirbila@gmail.com
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea . 20820 DEBA
943 029 186



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

zugandik zugana



JANTZIDENDA PAGOA

Lersundi kalea, 37
20820 DEBA



BURU - ZURI Taberna

- Otarkeoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANIAK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



Euskara ikasteko.
 Ordutegi malgua:
 goizez, arratsaldez eta gauetz.
 Beka sistema eta diru laguntzak ditugu.

Cursos de euskera.
Horarios de mañana, tarde y noche.
Disponemos de sistema de becas
y ayudas para el pago de la matrícula.



EUSKALTEGIS MUNICIPALES
 EUSKARAREN
 IRAKASKUNTZARAKO
 ENTITATE OFIZIALA

**Oraindik ere baduzu lekurik euskaltegian!
 ZATOZ!**

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
 Ifar kalea 12,
 Telefonoa: 943 192236
 e-posta: debabe.deba@telefonica.net

